



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko uztailaren 3a

88. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CTE-00001. Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2024ko kontuei buruz egindako txostena (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**11-24/CTE-00001. Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren
2024ko kontuei buruz egindako txostena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak "Nafarroako Parlamentuaren urteko kontuak, 2024" fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*Orrialdea*

I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA.....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	5
VI. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA	7
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2024KO URTEKO KONTUEN LABURPENA	8
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUA	14
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	15
4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	17
ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ORGANIGRAMA.....	24

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako Parlamentuaren Mahaiak 2025eko martxoaren 17an hartutako erabakia betetze aldera, Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2025erako fiskalizazio-programarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren (aurrerantzean, Parlamentua) 2024ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu du.

Azterlana 2025eko apirilean eta maiatzean egin du lantalde batek, zeina auditoretzako bi teknikari, sistema informatikoetako teknikari batek eta auditore batek osatu baitute. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren izan dute.

Lan honen emaitzak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea amaitu da, eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu Parlamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzagarri.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Eman dako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantza-egoerari eta legedi-betetzeari buruzko ikuskapena egin dugu Nafarroako Parlamentuaren 2024ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektuari buruz, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2024ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Parlamentuak 2024ko abenduaren 31n zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere; betiere. aplikatzekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea 2024ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Fiskalizazioaren norainokoak Nafarroako Parlamentuaren 2024ko urteko kontuak barne hartzen ditu, zeinek honako kontabilitate egoera-orri hauek hartzen baitituzte barnean:

- Aurrekontu-likidazioaren egoera-orria.
- Egoera-balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketaren egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Parlamentuaren urteko kontuak Nafarroako Parlamentuaren Kontabilitate Planari eta haren erregelamendu ekonomiko finantzarioari jarraituz egiten dira. Kontabilitate Plana Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari egokituta dago Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko abenduaren 17an hartutako Erabakiaren bidez.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2024ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira egin beharreko egiaztapenak, hobeki lortzearen ezarritako helburuak.

III. IRITZIA

19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Nafarroako Kontuen Ganberak Parlamentuaren urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu du. Honako hauek osatzen dituzte kontu horiek: 2024ko abenduaren 31ko balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontuak, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak, aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkiak. Orobat, Parlamentuari buruz 2024ko ekitaldiko legedi-betetzearen gaineko fiskalizazio bat egin du.

III.1 FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure iritziz, 2024ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuak irudi zehatza erakusten du, alderdi aipagarri guztietan, Parlamentuak 2024ko abenduaren 31n zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz betiere.

III.2 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Parlamentuaren 2024ko ekitaldiko finantzen egoera-orrietan jasotako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin, alderdi adierazgarri guztietan.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontroleko erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa; zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera. Halaber, kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoa (GPF-OCEX) erabili ditugu. Aurrerago deskribatzen dira arau horien indarrez ditugun erantzukizunak, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urteko kontuez eta legedia betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Entitatearekiko independenteak gara, urteko kontuez eta legedi-betetzeaz egin dugun fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunekin eta independentzia-babesaren arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jardueraren gaineko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen dio finantzei eta legedi-betetzeari buruzko gure iritziri.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak 2024ko urteko kontuei buruz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuei buruzko gure iritzia taxutzean jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Ondorioztatu dugu ez dagoela gure fiskalizazioan jakinarazi beharreko gai giltzarririk.

VI. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA

Eledunen Batzarraren ardura da Nafarroako Parlamentuaren kontua onestea.

Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua urteko kontuen aurreproiektua egiteaz arduratzen da, eta legelari nagusiari aurkezten dio, azken horrek Parlamentuko Mahaiari helarazi eta Eledunen Batzarrak onespena eman diezaion. Aurreproiektu horrek irudi zehatza eman behar du Parlamentuaren aurrekontu-likidazioari, ondareari, emaitzei eta finantza-egoerari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko arau-esparruari jarraituz.

Nafarroako Parlamentuko gobernu- eta administrazio-organoek bermatu behar dute, halaber, aipatutako kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Txosten honek aztergai duen urteko kontuen aurreproiektua 2025eko martxoaren 13an aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak, eta 2025eko martxoaren 18an eskuratu zitzaigun.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea urteko kontuetan oro har iruzur edo errore onoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan agerturiko jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat etortzeaz aplikatu behar den araudiarekin; hori guztia erregulartasunaren fiskalizazio-txosten bat emate aldera, zeinetan jasoko baita gure iritzia.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontroleko organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik errore material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izaten ahal dira, bai eta legedia ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikusten ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Kanpoko kontrol-organoei buruzko araudiari jarraitzen dion fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu auditoretza osoan. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legedia ez betetzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzari oinarri emateko auditoretza-ebidentzia egokia eta nahikoa lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats material bat ez atzematekoa baino; izan ere, iruzurrak bere barne izaten ahal ditu kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolarengandiko ihesa.

- Barne-kontrolari buruzko ezagutza lortzen dugu, fiskalizaziorako esanguratsua dena, xede hartuta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzea, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia ematea.

- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak zentzuzkoak diren, eta ea egokia den kudeaketa-organoak emandako informazioa.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta aztertzen dugu ea urteko kontuek zehatz azaltzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste auditoria-proba planifikatuen norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere.

VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Fiskalizatutako ekitaldian, lehenagoko txostenek jasotako *gomendio* garrantzitsu hauek bete dira:

- *Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuak deialdi publikoz betetzea, lanpostu horiek araudi indardunari jarraikiz behin betiko betetzeko.*

Aurreko ekitaldietako txostenetan jasotako *gomendio* garrantzitsu hauek lehengoan diraute:

- *Aparteko orduen gehieneko kopuru onartua gainditzen duten langileekin premiaz adostea zentzuzko denbora-tarte batean konpentsatuko dituztela ordu horiek atsedeen-orduen bidez, egoera erregularizatze aldera.*

- *Espedientean jasota uztea kontratuaren balio zenbatetsia zehaztearen arrazoizkotasuna.*

- *Espedientean justifikatzea zergatik ez den ezarri exekuzio baldintza berezirik.*

Gainera, finantza-fiskalizazioaren eta legedi-betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso ditugu txosten honen 4. gehigarrian, beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2024KO URTEKO KONTUEN LABURPENA

1.1 2024KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

Gastu-aurrekontuaren betetzea

Gastuak	Hasierako kredituak	Aldea	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarbiak (ABG)	% Betetzea	Ordainketak
1. Langileria-gastuak	9.130.710	-	9.130.710	8.527.845	93	8.527.693
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2.619.557	18.121	2.637.678	1.504.362	57	1.335.172
4. Transferentzia arruntak	3.433.950	25.600	3.459.550	3.299.371	95	3.271.172
5. Kontaketa orokorra eta beste ustekabeko batzuk	159.892	-	159.892	-	-	-
6. Inbertsio errealak	805.010	141.334	946.344	352.912	37	330.918
8. Finantza-aktiboak	57.795	-	57.795	17.927	31	17.927
9. Finantza-pasiboak	6.000	-	6.000	-	-	-
Gastuak, guztira	16.212.914	185.055	16.397.969	13.702.416	84	13.482.882

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldea	Behin betiko aurreikuspena	AEG	Betetakoa (%)	Kobrantzak
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3.300	-	3.300	114.093	3.457	114.093
4. Transferentzia arruntak	15.335.809	-	15.335.809	15.335.809	100	15.335.809
5. Ondare-sarrerak	5.000	-	5.000	71.163	1.423	71.163
7. Kapital-transf.	853.200	-	853.200	853.200	100	853.200
8. Finantza-aktiboak	15.010	185.055	200.065	16.554	8	16.554
9. Finantza-pasiboak	595	-	595	-	-	-
Diru-sarrerak, guztira	16.212.914	185.055	16.397.969	16.390.819	100	16.390.819

1.2 2024KO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2023			2024		
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehargarbiak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehargarbiak	Aurrekontu-emaiza.
a. Eragiketa arruntak (1.-5. kap.)	15.055.854	12.854.393	2.201.461	15.521.065	13.331.578	2.195.016
b. Kapital-eragiketak (6.-7. kap.)	758.200	662.274	95.926	853.200	352.912	500.288
1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b)	15.814.054	13.516.667	2.297.387	16.374.265	13.684.490	2.695.304
c. Finantza-aktiboak (8. kapitulua)	17.815	9.566	8.249	16.554	17.927	-1.373
d. Finantza-pasiboak (9. kapitulua)	2.423	3.022	-599	0	0	0
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	20.238	12.588	7.650	16.554	17.927	-1.373
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (1+2)	15.834.292	13.529.255	2.305.038	16.390.819	13.702.416	2.693.932
Doikuntzak						
3. Sartutako kredituak finantzatzeko funtsak			267.262			185.055
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			-			-
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			185.055			68.090
II. Doikuntzak, guztira (3+4-5)			82.206			116.966
Aurrekontu-emaiza doitua (I+II)			2.387.244			2.810.897
Foru Ogasunari Itzultzeko Zenbatekoa			2.387.244			2.810.897

1.3 DIRUZAINZA-GERAKINA 2024KO ABENDUAREN 31N

Osagaiak	2023	2024
1. Funts likidoak	3.691.335	3.697.247
2.(+) Kobratzeko dauden eskubideak	-	-
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	-	-
3.(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	3.506.279	3.629.157
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	543.790	219.554
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	2.962.489*	3.409.623*
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+2-3)	185.055	68.090
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	185.055	68.090
III. Saldo kobragaitzak	-	-
IV. Diruzaintza-gerakin atxikigabea (I-II-III)	-	-

* Barnean hartzen ditu Nafarroako Foru Ogasunari itzuli beharreko funtsak.

1.4 BALANTZEA, 2024KO ABENDUAREN 31KOA

(Emaita aplikatu ondoren)

	2023	2024
AKTIBOA, GUZTIRA	18.490.039	17.860.941
A) Aktibo ez-korrontea	14.788.539	14.147.468
I. Ibilgetu ukiezin garbia	625.394	504.683
3. Aplikazio informatikoak	624.139	503.663
2060-2806. Aplikazio informatikoak	624.139	503.663
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	1.255	1.020
2090-2809. Bestelako ibilgetu immateriala	1.255	1.020
II. Ibilgetu material garbia	14.152.143	13.636.471
2. Eraikuntzak	11.277.449	10.726.677
2110-2811. Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	11.277.449	10.726.677
5. Bestelako ibilgetu materiala	2.874.694	2.909.794
2140-2814. Makineria eta tresnak	645.697	499.606
2150-2815. Garraio-osagaiak	-	-
2160-2816. Altzariak eta tresneria	23.698	27.622
2170-2817. Informazio-prozesuetako ekipamenduak	260.258	404.919
2190-2819. Bestelako ibilgetu materiala	1.945.040	1.977.647
6. Aribideko ibilgetua	-	-
2340-Aribideko ibilgetua	-	-
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	11.002	6.315
4. Beste finantza-inbertsio batzuk	11.002	6.315
2540. Epe luzeko maileguak	11.002	6315
B) Aktibo korrontea	3.701.500	3.713.473
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-	-
3. Administrazio publikoak	-	-
4709 – Ogasun Publikoa zordun, kontzeptu fiskalak direla-eta	-	-
4490 – Beste zordun batzuk	-	-
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	10.166	16.225
4. Beste finantza-inbertsio batzuk	10.166	16.225
5440-534. Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	10.166	16.225
VII. Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	3.691.335	3.697.247
1. Kutxa	2.850	2.989
5700 – Kutxako eskudirua	2.850	2.989
2. Bankuak eta kreditu-erakundeak	3.688.485	3.694.258
5711 – Rural Kutxako kontu korrontea	3.688.485	3.694.258
ORDENA-KONTUAK	18.843	18.843
Abalak eta bermeak	18.843	18.843

	2023	2024
PASIBOA, GUZTIRA	18.490.039	17.860.941
A) Ondare garbia	14.966.841	14.214.845
I. Jarritako ondarea	12.611.936	12.055.119
1000. Ondarea	5.907.651	5.350.834
1001-1070. Atxikipen gisa jasotako ondarea	6.704.285	6.704.285
II. Sortutako ondarea	185.055	68.090
2. Ekitaldiko emaitzak	185.055	68.090
1291. Atxikitako funtsak, aplikatzeko daudenak	185.055	68.090
IV. Emaitei aplikatzeko dauden beste ondare-gehikuntza batzuk	2.169.850	2.091.636
1300. Dirulaguntzak	2.169.850	2.091.636
B) Pasibo ez-korrontea	12.115	12.115
1800. Epe luzeko fidantzak	12.115	12.115
C) Pasibo korrontea	3.511.083	3.633.981
I. Epe laburreko zuzkidurak. Epe laburreko zorrak	-	-
II. Epe laburreko zorrak	4.803	26.817
4. Beste zor batzuk	4.803	26.817
5600. Jasotako epe laburreko fidantzak eta gordailuak	4.803	4.823
4003. Beste zor batzuk	-	21.993
IV. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	3.506.279	3.607.164
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	543.790	197.541
4000. Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurtengo aurrekontuan	543.790	197.541
4199 – Beste hartzekodun batzuk	-	-
3. Administrazio publikoak	2.962.489	3.409.623
4750. Ogasun Publikoa hartzekodun, PFEZa dela-eta	429.552	452.541
4751. Ogasun Publikoa hartzekodun, eskubide pasiboak direla-eta	-	680
4752. Ogasun Publikoa hartzekodun, erabilera berezia dela-eta	-	-
4760. Ogasuna hartzekodun, kredituen itzulketa dela-eta	2.387.244	2.810.897
4770. Gizarte Segurantza hartzekodun	145.693	145.505
ORDENA-KONTUAK	18.843	18.843
Abalak eta bermeak	18.843	18.843
0570 Abal-emaileak	18.843	18.843

1.5 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA, 2024KOA

	2023	2024
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	15.360.999	16.267.223
a) Ekitaldikoak	15.360.999	16.267.223
a.2) Transferentziak	15.360.999	16.267.223
7500. Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	414.965	931.414
7510. Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	14.934.902	15.335.809
5. Egindako lanak ibilgetu ukiezina	11.132	-
7800. Entitateak bere ibilgeturako egindako lanak	11.132	-
6. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	102.597	114.073
7730. Itzulketak	71.021	98.654
7770. Beste diru-sarrera batzuk	31.576	15.391
7000. Argitalpenak saltzea	-	28
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira (2+5+6)	15.463.596	16.381.296
8. Langileria-gastuak	8.221.938	8.586.025
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	6.579.131	6.910.036
6400. Soldatak eta lansariak	2.998.265	3.127.924
6401. Behin-behineko langileen soldatak	604.546	636.032
6402. Parlamentarien dietak eta garraioak	6.763	21.328
6410. Funtzionarioen soldatak	2.908.237	3.051.378
6411. Langile kontratatuen soldatak	39.661	47.078
6412. Bestelako dietak eta garraioak	21.659	26.295
b) Zama sozialak	1.642.807	1.675.989
6409. Parlamentarien beste gastu sozial batzuk	16.133	16.133
6420. Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantzza	1.488.166	1.623.591
6449. Langileen beste gastu sozial batzuk	138.509	36.265
9. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	3.180.569	3.299.371
6500. Transferentzia arruntak	2.951.104	3.067.551
6510-Dirulaguntzak	229.465	231.820
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.451.887	1.446.182
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.451.887	1.445.938
b)Tributuak	-	244
12. Ibilgetuaren amortizazioa	882.998	989.295
B) Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+11+12)	13.737.392	14.320.873
I. Kudeaketa arrunteko emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A-B)	1.726.204	2.060.423
13. Beste diru-sarrera batzuk	-	-
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13)	1.726.204	2.060.423
15. Diru-sarrera finantzarioak	18.355	71.163
III. Finantza-eragiketen emaitzak (15)	18.355	71.163
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (II+III)	1.744.560	2.131.586

1.6 ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA, 2024

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Beste on- dare-gehi- kuntza batzuk	Guztira
A. Amaierako ondare garbia, 2023	12.611.936	185.055	2.169.850	14.966.841
B. Doikuntzak, kontabilitate-irizpideen aldaketen eta akats-zuzenketaren ondoriozkoak		-	-	-
C. 2024ko ekitaldiaren hasierako ondare garbi doitua (A+B)	12.611.936	185.055	2.169.850	14.966.841
D. Ondare garbiaren aldaketak, 2024	-556.817	-116.966	-78.214	-751.996
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	-	68.090	-78.214	-10.124
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk	-556.817	-185.055	-	-741.872
2024ko ondare garbia, amaierakoa (C+D)	12.055.119	68.090	2.091.636	14.214.845

1.7 2024KO DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	2023	2024
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak:	15.581.648	16.474.554
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	15.030.828	15.836.097
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	18.355	71.163
6. Beste kobrantza batzuk	532.464	567.294
B) Ordainketak:	16.043.058	16.489.282
7. Langileria-gastuak	8.073.286	8.438.229
8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	3.165.385	3.271.172
10. Beste kudeaketa-gastu batzuk	1.307.671	1.279.131
13. Beste ordainketa batzuk	3.496.716	3.500.750
Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)	-461.410	-14.728
II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	20.238	16.574
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	20.238	16.574
D) Ordainketak:	293.430	348.845
4. Inbertsio errealeen erosketa	283.865	330.918
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	9.566	17.927
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)	-273.192	-332.271
III. FINANTZAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
E) Ondare-gehiakuntzak	662.274	352.912
1300. Finantza-ibilgetua finantzatzeko dirulaguntzak	662.274	352.912
G) Finantza-pasiboen kobrantza	-	-
Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+E-G)	662.274	352.912
VI ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN IGOERA/JAI-TSIERA GARBIA EKITALDIAN (I+II+III)	-72.329	5.913
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak, ekitaldiaren hasieran	3.763.663	3.691.335
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak, ekitaldiaren bukaeran	3.691.335	3.697.247

2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 11. artikulua arabera, Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintza-ahalmena erabiltzeko du, Nafarroako aurrekontuak eta kontu orokorrak onesten ditu, Nafarroako exekutiboaren jardura bultzatzen eta kontrolatzen du eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen ditu.

2023ko ekainaren 16an, XI. legegintzaldia eratze bilerak egin zen zazpi talde politikorekin. Talde horiek 2023ko maiatzaren 28an egindako hauteskunde emaitza dira, eta honako osaketa hau dute, lortutako parlamentari-kopuruari dagokionez:

Alderdiak/koalizioak/elkartak	Parlamentariak
Unión del Pueblo Navarro TP	15
Nafarroako Alderdi Sozialista TP	11
EH Bildu Nafarroa TP	9
Geroa Bai TP	7
Nafarroako Alderdi Popularra TP	3
Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa TP	3
Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarte ¹	2
Parlamentariak, guztira	50

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2024ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Nafarroako Parlamentuaren funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2024-12-31n
Nafarroako Parlamentua	16.390.819	13.702.416	73

Osoko Bilkura, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira Parlamentuaren gobernu-organismoak. Txosten honen 1. Eranskinean ageri da Nafarroako Parlamentuaren organigrama.

¹ 2025-03-13an, Vox FPEko kideetako batek foru parlamentarien elkarte utzi ostean, elkarte desagitea erabaki zuen Mahaia, eta talde mistoko kide deklaratu zuen haren parlamentari bakarra.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hau da Nafarroako Parlamentuari 2024ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

Estatuko araudia

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoko behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.

Foru araudia

- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua, Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 16an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.²
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2020ko urtarrilaren 27an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2012ko abenduaren 17koa, Nafarroako Parlamentuaren Kontabilitate Plana onesten duena.
- Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2021eko uztailaren 26an onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 1999ko urriaren 18an onetsia, eta haren ondorengo aldaketak.
- Mahaiaren 2002ko abenduaren 16ko Erabakia, Parlamentuko taldeentzako langile laguntzaileen zuzkidura onesten duena.
- Parlamentuko Batzorde Iraunkorreko Mahaiaren 2007ko ekainaren 15eko Erabakia, parlamentarien ordainsariei buruzko araua onesten duena.
- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2012ko abenduaren 17koa, behin-behineko langileen ordainsariei buruzko araua onesten duena.
- Opor, lizentzia eta baimenei buruzko erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2021eko uztailaren 26an onetsia, eta haren ondorengo aldaketak.
- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2021eko uztailaren 26ko Erabakia, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Parlamentuko langileen lanaldia telelan-araubidean egiteari buruzko araua.
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2022ko martxoaren 21ean onetsia.
- Mahaiaren 2019ko irailaren 2ko Erabakia, talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak onesten dituena, 2023ko urriaren 2an aldatua.

² 2023ko maiatzaren 29an hartu zuen indarra.

- Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Mahaiak 2023ko urtarrilaren 9an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko gardentasunari eta jardueraren gaineko informazio publikoaren eskuragarritasunari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2023ko urriaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu jarraian, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gertatzen ahal direnak.

Gainera, zenbait gomendio jaso ditugu, Ganbera honen ustez Parlamentuaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak direnak.

4.1 PARLAMENTUAREN AURREKONTUA

Eledunen Batzarrak 2023ko urrian onetsi zuen 2024ko ekitaldirako Parlamentuaren Aurrekontuen proiektua. Nafarroako Aurrekontu Orokorrak martxoaren 13ko 2/2024 Foru Legearen bidez onetsi ziren, eta horietan sartuta dago Parlamentuaren aurrekontua, hain zuzen ere.

Parlamentuaren 2024rako hasierako aurrekontuan, diru-sarrereri eta gastuei buruzko hasierako aurreikuspenak 16,21 milioi eurokoak ziren, ehuneko hiru handiagoak 2023rako hasierako aurrekontukoak baino.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk egin ziren, 0,19 milioiokak –hasierako kredituen ehuneko bat egiten dute–, eta, horien ondorioz, behin betiko gastu eta diru-sarrerak 16,40 milioi eurokoak izan ziren.

Aurrekontu-likidazioa

2024an, gastuek 13,7 milioi euro egin zuten. Betetze-maila ehuneko 84koa izan zen, eta ordaintze-maila, ehuneko 98koa. Gastu horiek % 1 handiagoak izan ziren 2023koak baino.

Diru-sarrereri dagokienez, 2024an 16,4 milioiok eskubideak aitortu ziren, eta haien betetze-maila eta kobratze-maila ehuneko 100ekoa izan zen. Kasu honetan, diru-sarrereren igoera ehuneko laukoa izan zen 2023ko ekitaldikoarekin alderatuta.

Koadro honetan ageri dira Parlamentuaren gastuen eta diru-sarrereren xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantziazio-iturria	Ehunekoa
Langileak	62	Transferentzia arruntak	94
Transferentzia arruntak	24	Kapital-transferentziak	5
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	11	Tasak eta prezio publikoak	1
Inbertsio errealak	3		
	100		100

Jarraian, 2023ko eta 2024ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazle batzuen alderaketa erakusten dugu:

Adierazleak	2023	2024	2024/2023 aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	15.834.292	16.390.819	4
Aitortutako betebeharrak, guztira	13.529.255	13.702.416	1
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	15.055.854	15.521.065	3
Funtzionamendu-gastuak (1.a, 2.a eta 4.a)	12.854.393	13.331.578	4
Kapital bidezko diru-sarrerak (6.a eta 7.a)	758.200	853.200	13
Kapital-gastuak (6.a eta 7.a)	662.274	352.912	-47
Aurrekontu-emaizta doitua	2.387.244	2.810.897	18
Diruzaintzako gerakina, guztira	185.055	68.090	-63

Bilakaera horretatik, honako hau nabarmendu nahi dugu:

- 2024ko aitortutako eskubideak ehuneko lau handiagoak izan ziren 2023koak baino; nagusiki, transferentzia arruntak ehuneko hiru areagotu zirelako.

- 2024an aitortutako betebeharrak ehuneko bat handiagoak izan ziren aurreko ekitaldikoak baino. Aipagarria da inbertsioak ehuneko 47 txikitu direla, eta, bestalde, langileria-gastuak eta transferentzia arruntak areagotu egin direla, ehuneko lauan biak ere.
- Foru Ogasunari sartu beharreko zenbatekoa, indarreko legediarekin bat, aurrekontu-emaitza doitua da, 2,8 milioi euro egiten duena; ehuneko 18 handiagoa da aurreko ekitaldikoak baino.
- 2024ko diruzaintza-gerakina, guztira, 68.090 eurokoa izan zen; zenbateko hori ehuneko 63 txikiagoa da 2023koa baino.

4.2 KUDEAKETA-ARLOAK

4.2.1 Langileria-gastuak

Parlamentuaren langileria-gastuak 8,53 milioi eurokoak izan ziren 2024an, ehuneko 93ko bete-tze-mailarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 62 egiten dute.

2023arekin alderatuta, nahiz eta talde parlamentarioentzako ordainsariak eta diru-zenbatekoak % 2 handitu ziren, langileria-gastuak % 4 handitu ziren, honako xehetasun hauen arabera:

Kontzeptua	ABG, 2023	ABG, 2024	2024/2023 aldea (%)
Lehendakaritzaren ordainsariak	78.931	81.284	3
Parlamentarien ordainsariak	2.796.419	2.936.612	5
Parlamentari ohien ordainsariak	63.353	71.681	13
Parlamentarien dietak	59.561	38.347	-36
Lehendakaritzako Kabineteko behin-behineko langileen ordainsariak	103.274	108.834	5
Behin-behineko langileen ordainsariak. Beste kargudun batzuk	501.272	527.199	5
Langile funtzionarioen ordainsariak	1.803.848	1.790.839	-1
Aldi baterako lan-kontratadunen ordainsariak	1.144.050	1.307.618	14
Gizarte Segurantzza	883.059	966.149	9
Parlamentarien Gizarte Segurantzza	605.106	657.442	9
Beste hobekuntza sozial batzuk	12.505	1.680	-87
Parlamentarien aseguruen prima	16.133	16.133	0
Zerbitzuetako langileen aseguruen prima	24.199	24.028	-1
Epaiak betearaztea	99.173	-	
Guztira	8.190.884	8.527.845	4

Aldaketa esanguratsuenak berrikusi eta aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu behar bezala oinarrituta eta dokumentatuta daudela.

2024an, karguoste-ordainsariak eman zitzaizkien zenbait parlamentari ohiri, 71.681 euroko zenbatekoz.

Plantilla organikoa

2024ko abenduaren 26ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2024. urterako plantilla organikoa eta 2023ko abenduaren 31ko langile-zerrenda.

Honako hauek dira lanpostuak, plantilla organikoaren arabera:

Sailkapena	2024/12/31
Funtzionarioak	62
Behin-behineko langileak	3
Talde parlamentarioen laguntzaileak	13
Guztira	78

Funtzionario-lanpostuen 2024ko abenduaren 31ko egoera honako koadro honetan ageri da:

	2024/12/31
Plantillako lanpostuak ³	61
Beteta edo plaza erreserbatuta	32
Hutsik	29
Lanpostu hutsak, guztizkoaren aldean (%)	48
Bete diren lanpostu hutsak	25
Aldi baterako bete diren lanpostu hutsak (%)	86

Behin-behinekotasunaren indizea ehuneko 44koa da, behin-behinekoz betetako lanpostuen eta modu finkoan nahiz aldi baterako betetako plaza guztien arteko zatidura gisa kalkulaturik; tasa horrek agerian uzten du behin-behinekotasuna handia dela. 29 plaza huts daude, eta, horietatik, ehuneko 86 behin-behinekoz beteta daude.

26 plazatarako deialdiak egin dira 2023an eta 2024an, xedetzat harturik egiturazko behin-behinekotasunaren tasa kokatzea abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premia-azko neurriei buruzkoak, ezartzen duen ehuneko zortzia baino beherago. Txosten hau idatzi zenerako, beteak ziren 23 plaza; hortaz, behin-behinekotasunaren tasa ehuneko zazpikoa izanen litzateke.

2024ko abenduaren 31n, honako langile hauek ziharduten lanean Nafarroako Parlamentuan:

Langileak	2024/12/31
Funtzionarioak	27
Behin-behineko langileak (talde parlamentarioen laguntzaileak barne)	16
Plaza hutsak betetzen ari diren administrazio-kontratudun langileak	25
Beste egoera batzuk estaltzen ari diren administrazio-kontratudun langileak (burutzak, prestakuntza, beste batzuk)	5
Guztira	73

Gastu-lagin baten berrikuspena

Aztertu dugu ea "a3Nomina" aplikazioan (hartatik ateratzen dira nominak) kontabilizatutako gastua bat datorren kontabilitatean erregistratutakoarekin, eta egiaztatu dugu nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztietako gastuak bat datozela, eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

Gainera, azaroan sortutako nomina bateko ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu, ekitaldietara bertaratzearagatik parlamentariei ordaindutako dietak alde batera utzita.

Zehazki, nominako zortzi kontzeptu aztertu ditugu, 113 laguni dagozkienak, eta guztira 425.390 euro egiten dutenak. Zenbateko hori azaroan sortutako nominaren guztizkoaren ehuneko 87 da, eta auditatutako ekitaldiko langileria-gastu guztizkoaren ehuneko bost.

Egiaztatu dugu langile kontratatu guztiak plaza huts bati lotuta daudela, edo behar justifikatuekin lotutako kontratazioak direla.

Era berean, sistema informatikoetako ofizial teknikoaren plaza bat, funtzionario-araubidekoa, betetze aldera egindako deialdia aztertu dugu, eta ikusi dugu merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioen arabera dela.

Lau atalburu-plazak aztertu ditugu; horietatik bi, bitarteko izendapen bidez beteta daude. Araudian aurreikusita dago Parlamentuko langileen artean eginen den merezimendu-lehiaketa bidez beteko direla prozedura arrunt gisa.

Ikusi dugu Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren Idazkaritzaren burutza administratiboa administrazio-kontratudun langileekin bete dela; aldiz, plantilla organikoan aurreikusita dago izendapen aske bidez eginen dela Parlamentuko administrarien kidegoko funtzionarioen artean. Espedientean

³ Plantillan jasota dago 62 plaza daudela, baina funtzionarioen zerrendan, aldiz, esaten da 61 daudela.

adierazi da langile funtzionarioen artetik inor ez dela prest agertu, eta administrarien kidegoko beste plaza batzuk betetzeko hautespen-prozesua amaitzeaz dagoela.

Konpentsatzeko dauden aparteko orduen langileen poltsa aztertu dugu, eta ikusi dugu lau pertsonak 150 ordu baino gehiago dituztela, auditatutako ekitaldia baino lehenago sortutakoak.

Gure fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honen “Gomendioen jarraipena” epigrafean gai horri buruz esandakoaz gainera, *gomendatzen dugu atalburutzak prozedura arruntaren bidez betetzeko deialdiak egitea.*

4.2.2 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Parlamentuak ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arruntak 1,5 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 11 egiten du horrek. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 57koa izan zen.

Hona hemen ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kontzeptu nagusiak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

	ABG, 2023	ABG, 2024	24/23 aldea (%)
Garbiketa eta txukuntasuneko zerbitzuak	345.782	355.437	3
Ekipo eta programa informatikoen konponketa- eta mantentze-lanak	191.836	147.711	-23
Informazio-zerbitzuak	174.264	196.780	13
Egindako beste lan batzuk	155.599	196.491	26
Hornidurak	145.428	138.076	-5
Makineria, instalazioak eta lanabesak konpontzea	86.203	99.166	15
Eraikinaren konpontze- eta mantentze-lanak	53.921	74.017	37

“Egindako beste lan batzuk” gastu-kontzeptua aztertu dugu, honako hauei dagokiena, besteak beste: transkripzio-, zuzenketa- eta itzulpen-zerbitzua, bilkuretarako laguntza teknikoa eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako erabilerraztasun-zerbitzua.

Egindako lanaren konklusioa da gastuak, oro har, zuzen onetsita, kontabilizatuta eta justifikatuta daudela, eta araudiak ezartzen duen epean ordaindu direla.

4.2.3 Transferentzia arruntetako gastuak

Parlamentuaren transferentzia arruntetako gastuak 3,30 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 24 egiten du horrek. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95ekoa izan zen. Kapitulu honetako gastuek ehuneko lau egin zuten gora 2023ko ekitaldikoekin alderatuta.

Talde politikoei esleitutako diru-kopuruak berrikusi ditugu: 3,07 milioi euroko zenbatekoa egin zuten, eta kapituluko gastuen ehuneko 93 da hori. Talde parlamentarioen ordainsariak ehuneko bi hazi baziren ere, ehuneko lauko igoera⁴ izan dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta, honako xehetasun hauekin:

Alderdiak/koalizioak/elkartek	Zenbatekoa
Unión del Pueblo Navarro TP	757.602
Nafarroako Alderdi Sozialista TP	626.796
EH Bildu Nafarroa TP	507.041
Geroa Bai TP	441.280
Nafarroako Alderdi Popularra TP	255.948
Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa TP	255.948
Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartea	222.936
Guztira	3.067.551

Egiaztatu dugu talde horiei ordaindutako zenbatekoa bat datorrela Mahaiaren 2024ko martxoaren 18ko erabakiaren bidez onetsitako diru-esleipenekin.

Egiaztatu dugu talde politikoei bete egin dutela beren kontabilitatea epe eta modu egokian aurkezteko betebeharra. Gainera, honako hau ere egiaztatu dugu:

- Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak manuzko txostena jaulki du.
- 2025eko ekainaren 9an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak betetzat eman zituen aplikatze-koa den araudian eskatzen diren izapideak, eta horiek Parlamentuaren webgunean eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea agindu zuen.

Talde politikoei alderdi politikoei egiten dizkieten ekarpenei dagokienez, Kontuen Ganberak, Parlamentuaren 2021eko kontuei buruzko txostenean, gomendatu zuen alderdi politikoen eta haien taldeen arteko lankidetzaren harremanak hitzarmenen bidez formaliza zitezela.

Mahaiak, 2023ko urriaren 2an, erabaki zuen talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak aldatzea; horren arabera, dagokion hitzarmena eskatu da 2024ko ekitaldi honetako kontu-ematetik aurrera. Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak horri buruzko zenbait gomendio eman ditu.

Talde politikoei honako erabilera-xede hauek aurkeztu dituzte:

Alderdiak/koalizioak/elkartek	Zenbatekoa	Lotutako erakunde intsuldatzea (8/2007 LO, 2.e art.) ⁵	%	Funtziona- mendu, antola- keta eta jardura arruntaren gastuak	%	Ematza	Finantza- gastuak	Ekitaldiko emaitza
Unión del Pueblo Navarro TP	757.602	706.000	93	49.581	7	2.020	-	2.020
Nafarroako Alderdi Sozialista TP	626.796	623.768	100	232	0	3.028	-	3.028
EH Bildu Nafarroa TP	507.041	505.800	100	-	-	1.241	1.179	62
Geroa Bai TP	441.280	441.500	100	96	0	-316	-	-316
Nafarroako Alderdi Popularra TP	255.948	206.623	81	47.150	18	2.254	-	2.254
Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa TP	255.948	232.320	91	21.671	8	1.957	-	1.957
Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartea	222.936	132.633	59	7.898	4	82.405	-	82.405
Guztira	3.067.551	2.848.644	93	126.628	4	92.590	1.179	91.411

⁴ 2024ko ekitaldian, zazpi talde politikok ekitaldi osoan zehar jaso zituzten ordainsariak; aldiz, 2023ko ekitaldian, ekainaren 16tik aurrera jaso zituzten.

⁵ Alderdi politikoei intsuldatzea

Bestalde, adierazten dugu Kontu Auzitegiari dagokiola talde politikoen kontuak fiskalizatzea.

Halaber, honako aurrekontu-partida hauen betetzea aztertu dugu, bai eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta izandako aldakuntza ere:

Kontzeptua	ABG, 2023	ABG, 2024	Aldea (%) 2024/2023
Hitzarmena Nafarroako Unibertsitatearekin	13.405	12.600	-6
Hitzarmena Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin	102.915	86.582	-16
Beste hitzarmen batzuk	33.144	21.336	-36

Adierazitako lagina aztertuta, ikusi dugu laguntzen araubidea ezartzen duen hitzarmenak ez dituela behar beste zehazten jasotako dirulaguntza justifikatzearekin lotutako zenbait zertzelada. Honako hauek dira funtsean: gastu hautagarrien izaera eta dirulaguntzaren xedean egindako aldaketa esanguratsuen jakinarazpena.

Gure fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honen “Gomendioen jarraipena” epigrafean gai horri buruz esandakoaz gainera, *gomendatzen dugu dirulaguntzak arautzen dituzten hitzarmenetan eranskin gisa jasotzea Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egindako “Parlamentuak diruz lagundutako jarduerak dokumentuz justifikatzeko gida”, non zehazten baita onuradunak egin beharreko justifikazio-prozesua.*

4.2.4 Kontratazioa

Honako kontratu hauen esleipen-prozedura aztertu dugu, eta, hala badagokio, baita betetzea ere:

Kontratua	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbat. (BE-Zik gabe)	Lizitatzailerikop.	Esleipenaren zenbat. (BEZik gabe)
Argazki-zerbitzuak ⁶	Irekia	26.160	2	24.920
Ikus-entzunezko zerbitzuak	Negoziatua, lizitazio-deialdirik gabekoa	82.880	1	82.880
Segurtasun perimetraleko soluzio baten hornidura, instalazioa, abian jartzea eta laguntza	Irekia	115.000	2	106.572
Ikus-entzunezko sistemarako ekipamendu-hornidura	Sinplifikatua	25.000	2	17.200

Oro har, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen eta Parlamentuaren Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioaren arabera izapidetu dira aipatutako kontratuen espedienteak. Haietatik datozen gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude, eta araudian ezarritako epeetan ordaindu dira. Halere, honako hau aipatu behar dugu:

- *Segurtasun perimetraleko soluzio baten hornidura, instalazioa, abian jartzea eta laguntza* kontratuari dagozkion pleguetan, esleipen-irizpideez aritzean ez dago zehaztuta azpi-irizpideen balorazioa.

- Pleguetan ez da ezarri exekuzio-baldintza berezirik, eta espedienteetan ez da jaso halakorik ez ezartzea justifikatzeko arrazoirik.

- Espedienteetan ez da jaso kontratuaren balio zenbatetsia zehaztearen arrazoizkotasunik.

⁶ Betetzea aztertuta

- Eskaintzak baloratzeko erabilitako formulak puntuak esleitzen ditu baita prezioan beherape-nik egin ez den kasuetan ere. Dena den, aztertutako espedienteetan, puntu horiek ez dute eraginik izan esleipendunaren aukeraketan.

Txosten honen “Gomendioen jarraipena” epigrafean horri buruz esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Pleguetan doitasunez, xehetasunez eta zehaztapen teknikoak adieraztea esleipenerako azpi-irizpide kualitatiboak.*
- *Pleguetan balioespen ekonomikoko formula haiek ezartzea zeinek ez baitiete punturik ematen lizitazio-zenbatekoa berdintzen duten eskaintzei.*

4.2.5 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 15,34 eta 0,85 milioi eurokoak izan ziren, diru-sarrera guztien ehuneko 99, hain zuzen ere; haien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan zen. Honako koadro honetan jaso da 2023ko ekitaldiko diru-sarrerekiko konparazioa:

Kontzeptua	AEG, 2023	AEG, 2024	Aldea (%) 2024/2023
Transferentzia arruntak	14.934.902	15.335.809	3
Kapital-transferentziak	758.200	853.200	13

Egiaztatu dugu aurrekontu-informazioa koherentea dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan jasota dagoenarekin.

ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ORGANIGRAMA

24



